



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2021EKO APIRILA

**Apirila oso lehorra izan zen eta tenperaturari dagokionez ohikoa, baina ñabardurekin. Muturreko egoerei dagokienez, oso lasaia izan zen. Zazpi abisu baino ez ziren igorri, baso suteengatik gehienak, apirila erabat ezohikoa izan zen seinale. Kontraste termiko handiak izan ziren; hilaren 1ean ezohiko bero handia izatetik hilaren 16an Kantauri isurialdean tenperatura minimo absolutuen efemerideak izatera pasa ginen.**

### Prezipitazioa

Pilatutako prezipitazioaren arabera, apirila oso lehorra izan zen, Arabako Errioxako mendebaldean eta Arabako bailaretan izan ezik, bi eskualde horietan lehorra izan zen. Bi eskualde horietan salbu, ohikoa denaren erdia baino euri gutxiago egin zuen. Pilatutako euriaren banaketa espazialak ez zuen ohiko joera izan eta estazio batek ere ez zituen 100 mm baino gehiago jaso. Bizkaiko barnealdean egin zuen euri gehien (Venta Alta 87 mm, Cerroja 73.9 mm, Orozko 71.7 mm, Abusu 71.5 mm). Araba hegoaldean egin zuen prezipitazio gutxien (Kanpezu 18 mm, Páganos 28.8 mm, Navarrete 36.9 mm), baita kantauri isurialdeko leku batzuetan ere (Oleta 39.6 mm, Balmaseda 40.5 mm, Arteaga 40.5 mm, Amundarain 41.4 mm). Azken urteetako apirilak kontuan izanik, lehorrenen artean dago, 2010koa baino ez zen izan lehorragoa.

Apirila ez da izaten urteko hilabeterik euritsuena, baina bai euri-egun handiena duena. Aurtengo apirilean, ordea, ez zen horrela gertatu; kostaldean 5-7 euri-egun izan ziren, ohikoa 12-13 denean, Arabako Lautadan 9 edo gutxiago izan ziren, ohikoa 11 denean. Aipagarria da Mediterraneo isurialdean kostaldean baino prezipitazio-egun gehiago izan zirela.

Zentzu horretan, aipatu behar da martxoaren 19an edo 20an hasi eta apirilaren 10era doan denboraldia, ez baitzuen euririk egin, zenbait lekutan izan ezik.

Egun bakar batean izan zen prezipitazioa oso ugaria, hilaren 11an, hain zuzen ere, eta oso leku gutxitan (Venta Alta 42.7 mm, Igorre 29.4 mm, Ibai Eder 29.1 mm, Orozko 29 mm, Matxinbenta 28.9 mm, Berriatua 27.5 mm, Eskas 26.9 mm, Cerroja 25.2 mm).

Hilaren 27a izan zen bigarren egunik euritsuena, orduan lurralde osoan zehar ongi banatu zen euria (Orozko 20.3 mm, Orduña 19.4 mm, Abetxuko 19.3 mm, Venta Alta 18.6 mm, Amorebieta 17.6 mm).

**Taula 1: Azken urteetan apirilean pilotutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
<b>Deusto</b>	52.3	51.5	60.6	107.7	60.0	55.9	61.7	41.2	138.7	182.4
<b>Lasarte</b>	54.4	106.7	115.7	225.5	79.5	75.3	100.5	80.0	158.3	229.7
<b>Arrasate</b>	58.1	81.2	89.1	188.8	76.1	122.4	58.5	54.7	190.9	211.1
<b>Abetxuko</b>	56.6	51.8	78.2	123.6	17.7	49.6	39.2	36.5	74.0	102.6
<b>Párganos</b>	28.8	54.0	66.6	96.1	11.6	33.8	14.3	32.2	43.7	61.9

## Temperatura

Temperaturari dagokionez, apirila orokorrean ohikoa izan zen, kostaldearen ekialdean beroa eta Araba barnealdean hotza. Batez besteko temperatura kostaldean 12-13 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 9 °C-tik gorakoa, 1980-2010 denboraldiko batezbestekotik gertu. Mende honetako bosgarren apiril hotzena izan zen.

Egun hotzen kopurua ohikoa dena baino altuagoa izan zen, baina egun beroen anomalia ohi baino handiagoa izan zen, beraz hilabeteko kalifikazioa orekatuta geratu zen. Aipagarria da hilaren 1ean izandako anomalia positiboa eta hilabetearen bigarren herenean izandako egun hotzen segida.

Egun hotzekin lotuta, Araba barnealdean izandako izotz-egunen kopurua ere ohikoa dena baino askoz handiagoa izan zen, 8 ingurukoa, ohikoa 3 baino gutxiagoa izatea denean. Hilaren 13an inbertsio termikoa izan zen eta izotza Mediterraneo isurialde osoan egin zuen; Iturrietako mendi inguruetan izotz handia bota zuen (Iturrieta -5.3 °C, Roitegi -4.6 °C, Navarrete -3.4 °C, Salvatierra -3.1 °C, Trebiño -3.1 °C); egun hartan kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere izotza egin zuen (Berastegi -1.2 °C, Muxika -0.7 °C, Balmaseda -0.4 °C, Aitzu -0.2 °C).

Hilaren 16an Kantauri isurialdeko hainbat lekutan XXI mendeko temperatura minimo absolutuen errekorrak hautsi ziren, esate baterako: Aixolan -0.3 °C, Bernan -0.5 °C, Orozkon -1 °C, Oñatin -1 °C, Muxikan -1.8 °C eta Berastegin -2.9 °C.

Bestalde, hilaren 24an Kantauriko bailaretako zenbait lekutan XXI mendeko temperatura minimo altuen errekorrak ere hautsi ziren, esate baterako: Elorrion 17.3 °C, Derion 16.6 °C, Abusun 15.5 °C, Estandan 15 °C, San Prudentzion 14.4 °C eta Aitzun 13.9 °C.

Anplitude termiko handiko egunak ugariak izan ziren, egunsentian temperatura oso baxuekin, batez ere barnealdean, baina intsolazioari esker maximo altuekin, esate baterako hilaren 5ean, 8an eta 19an.

Temperatura maximoei dagokienez, altuenak hilaren 24an Kantauri isurialdean neurtu ziren. Kostaldean 26-27 °C ingurukoak izan ziren (Oiartzun 27.6 °C, Higer 27 °C, Oleta 27 °C, Mungia 26.1 °C) eta Kantauriko bailaretan 23-25 °C



ingurukoak (Zalla 24.8 °C, Amorebieta 25 °C, Iurreta 24.6 °C, Arrasate 24.1 °C, Ordizia 23 °C). Mediterraneo isurialdeko temperatura maximo altuenak hilaren 19an neurtu ziren (Zambrana 21.4 °C, Párganos 21.3 °C, Salvatierra 20.5 °C, Arkauti 20.1 °C). Edozein kasutan, martxoan neurtutakoak baino baxuagoak izan ziren maximo horiek, apirila ohikoa ez izatearen seinale garbia.

Bukatzeko, intsolazioa ohikoa dena baino handiagoa izan zen, batez ere kostaldearen ekialdean, konkretuki ohikoa dena baino % 30 handiagoa. Gainerako lekutan % 15 handiagoa izan zen, Araba hegoaldean izan ezik; han intsolazioa ohikoa dena baino baxuagoa izan zen.

**Taula 2: Apirilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	13.1	15.0	13.5	14.4	12.7	13.4	15.5	14.6	13.0	11.7
Lasarte	12.3	14.9	12.1	14.3	12.1	12.1	14.2	13.6	12.2	10.8
Arrasate	10.7	13.2	10.7	12.6	11.2	10.0	12.8	12.6	10.2	8.7
Abetxuko	9.1	12.2	9.9	11.4	10.5	9.2	12.1	12.5	9.9	8.4
Párganos	10.2	11.9	10.4	11.3	12.1	9.6	12.5	13.2	10.3	8.9

## Haizea

Ipar-osagaiko haizea izan zen nagusi apirilean, baina haize-boladarik indartsuenak hegoaldekoak izan ziren.

Hilaren 1ean, goizaldean, hego/hego-ekialdeko haize-bolada oso gogorak izan ziren, bai haizeguneetan, bai haizeguneak ez diren tokietan (Zizurkil 96.8 km/h, Oiz 87.8 km/h, Arboleda 83.9 km/h).

Hilaren 2tik 7ra ipar-haizea izan zen nagusi; ahul ibili zen eta ez zen bolada oso gogorrik neurtu.

Hilaren 8an, 9an eta 10ean hegoaldeko haizeak jo zuen eta indartu egin zen berriro ere, bolada oso gogorrekin, baina nabarmentzeko moduko baliorik ez zen izan.

Hilaren 10ean, egunaren amaieran, haizea iparraldera aldatu eta hilaren 21era arte nagusi izan zen. Ipar-haizea ez zen indartsua izan eta bolada oso gogor gutxi neurtu ziren.

Hilaren 22tik 25era hego-ekialdeko haizea izan zen nagusi, bolada oso gogorrekin bai haizeguneetan, bai haizeguneak ez diren tokietan. Horien artean aipagarrienak hilaren 24an neurtutakoak, hilabete osoan 100 km/h-ko abiadura



gainditu zen egun bakarra izan zen (Oiz 101.6 km/h, Zizurkil 92.9 km/h, Ilarduia 86.8 km/h, Kapildui 85.7 km/h).

Hilabetearen amaieran ipar-haizea ibili zen berriro ere, noizbehinka bolada oso gogorren batekin.

## Analisia

### Apirilaren 1a

Apirilaren hasieran martxoaren amaierako egoerarekin jarraitu genuen, aire-masa bero bat gurean zabaldua, alegia. Tenperatura garai horretan ohikoa dena baino askoz altuagoa izan zen, ez ordea martxoaren azken egunetakoa bezain altua. Bestalde, aurreko egunetan ibili zen hegoaldeko haizeak hautsa ekarri zuen Afrikatik eta zerua gandututa egon zen.

### Apirilaren 2tik 5era

Hilaren 2an Iberiar penintsulan depresio bat kokatu zen, ongi definitu gabea; goigeruzan baxua Iberiar penintsularen iparraldean zegoen. Tenperaturak behera egin zuen eta aurreko egunetako gandua desagertu zen. Hurrengo egunetan depresio hori hegoaldera mugitu zen, gero Mediterraneora, eta berarekin batera aktibitate konbektiboa. Azken egunetan hotz egin zuen gurean, baina eguraldia egonkorra izan zen. Hilaren 5ean Penintsula aintzira barometrikoan murgildu zen, baina aldaketa zetorrela ikusten zen. Ipar Atlantikoan antizikloi indartsu bat kokatu zen eta Eskandinaviako iparraldean depresio bat. Horrela, Europan Artikotik etorritako airea zabaldu zen, Frantziatik pasa zen fronte hotz bat buru zuela.

### Apirilaren 6tik 9ra

Hilaren 6an aipatutako fronte hotz hura Kantauri itsasotik igaro zen, baina ahulduta heldu zen gurera. Prezipitazioa urria izan zen eta elur-kota 900-1000 mm inguruan egon zen; zerua oso hodeitsu egon zen. Hilaren 7an aire-masa artikopolarra Penintsularen iparraldean zabaldu zen; egun horretan eta hurrengoan EAEko barnealdeko mendi inguruetan izotza egin zuen, baita beste zenbait eskualdetan ere, esate baterako Arabako ibarretan. Presio altuak Kantauri itsasoan zabaldu ziren gero, ziri itxurarekin. Hilaren 8an eta 9an Alpeetan kokatu ziren, 1030 hPa-ko presioarekin bere erdigunean, eta Portugaleko mendebaldean depresio txiki bat garatu zen. Aire-masa subtropikal baten mendebal/hego-mendebaldeko fluxuari esker, tenperaturak gora egin zuen eta depresio hari loturiko ezegonkortasuna areagotu egin zen, batez ere EAEko hegoaldean.

### Apirilaren 10a eta 11a

Depresioa Penintsulan kokatu zen eta ezegonkortasuna denean gailendu zen, goigeruzan aska atlantiko bat sortu zelako. Hilaren 10ean, azken orduetan, eta



hilaren 11an, egunaren lehenengo partean, prezipitazio ugaria egin zuen denean eta temperatura nabarmen jaitsi zen.

### **Apirilaren 12tik 18ra**

Hilaren 12tik aurrera presio altuak izan ziren nagusi. Hilaren 12an Atlantikoan kokatu ziren, hilaren 13an, berriz, Britainiar uharteetan. Hurrengo egunetan Britainiar uharteetan inguruan jarraitu zuten. Eguraldia egonkorra izan zen eta zerua hodei gutxirekin egon zen orokorrean. Fluxu kontinentalarekin eta hilaren 17an -3 °C inguruko aire-masa hotzarekin, temperatura ez zen altua izan, ordea. Goizaldean zerua oskarbi egon zen eta barnealdeko hainbat tokitan izotza egin zuen. Iturrietan neurtutako temperatura minimoa -5 °C ingurukoa izan zen. Kantauri isurialdeko zenbait estaziotan apirilean inoiz neurtu ziren temperatura minimo baxuenak neurtu ziren.

### **Apirilaren 19tik 22ra**

Egoera sinoptikoak ezegonkortasunera jo zuen. Aurreko egunetako presio altuak aldendu egin ziren eta Atlantikoan jatorria zuten ezegonkortasun-lerro batzuk igaro ziren lurraldetik. Lurrazaleko egoera zehaztugabe, hilaren 22ra arte gradiente isobarikoa txikia izan zen eta haizea ahul ibili zen, arratsaldean brisarekin. Eguraldia lasaia izan zen, eguzkitsua orokorrean, baina bero-hodei batzuk ere garatu ziren eta zaparrada batzuk bota zituen.

### **Apirilaren 23tik 25era**

Hilaren 23tik aurrera, Portugalen mendebaldean zegoen GIDE baten eraginpean geratu ginen. Goi-geruzan isolaturiko depresio horren azaleko isla izan zen depresioari "Lola" izena jarri zioten. Depresio hura ez zen apenas mugitu egun haietan, baina apurka-apurka Penintsularen hego-mendebaldera hurbilduz joan zen. Gurean hego-ekialdeko haizea ibili zen eta temperatura altua izan genuen, batez ere kantauri isurialdean. Iberiar Penintsulan GIDEak sortutako ezegonkortasuna handia izan bazen ere, gurean ez zuen eragin handirik izan, hilaren 25ean bota zituen zaparrada batzuk baino ez.

### **Apirilaren 26tik 30era**

Hilaren 26an, depresioa, ahulduta, Penintsularen barnealdean kokatu zen, Atlantikoan blokeo egoera bat ezartzen zen bitartean. Egunaren lehenengo partean zaparradak bota zituen. Gero depresioa Liongo golgora mugitu eta haizea aldatu egin zen; ordutik aurrera, zaparradak hegoaldeko etorri beharrean itsasotik sartu ziren. Hurrengo egunetan fronte batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen astiro eta euria EAE osoan egin zuen. Hilaren amaieran Europa iparraldean kokatu zen depresioa, gune sekundario batekin Penintsulan. Iparraldeko haizea ibili zen eta giroa hezea izan zen; temperaturak behera egin zuen pixkanaka.








## Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko apirileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak.
Deusto	13.1	17.0	25.8	9.2	3.9	0	52.3	21.9	7
Lasarte	12.3	16.4	26.8	7.6	1.8	0	54.4	23.2	5
Arrasate	10.7	16.4	24.1	5.7	-0.9	2	58.1	26.8	7
Abetxuko	9.1	14.7	20.8	3.9	-1.9	8	56.6	19.3	9
Párganos	10.2	15.4	22.6	5.8	-0.8	1	28.8	5.2	9



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 
 Temperatura minimoa
 
 Batez besteko temperatura
 
 Temperatura maximoa




## Prezipitazioaren jokaera


**Behatutako prezipitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezipitazio normala**  
*Precipitación normal*



**Prezipitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezipitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*







## Muturreko balioak

### Apirileko temperatura minimo absolutua

Estazioa	Data	Egungo errekorra 2021 apirila (°C)	Data	Aurreko errekorra XXI mendeko apirila (°C)	Estazioa jarritako urtea
Aixola	2021/4/16	-0.3	2006/4/11	-0.1	1989
Berna	2021/4/16	-0.5	2016/4/2	0.0	1992
Ereñozu	2021/4/16	1.2	2003/4/5	1.4	1992
Orozko	2021/4/8	-1	2019/4/13	-0.3	1992
Andoain	2021/4/16	0.2	2000/4/7	0.4	1995
Aizarnazabal	2021/4/16	0.6	2015/4/6	1.6	1996
Ibai Eder	2021/4/16	0.3	2020/4/4	0.9	1996
Oñati	2021/4/16	-1	2006/4/12	-0.4	1997
Belauntza	2021/4/16	0.3	2013/4/6	0.4	1998
Muxika	2021/4/16	-1.8	2016/4/2	-0.5	1998
Igorre	2021/4/16	0	2006/4/12	0.2	1999
Aitzu	2021/4/16	-1.1	2020/4/3	-0.6	2000
Berastegi	2021/4/16	-2.9	2019/4/13	-1.3	2000
Lasarte	2021/4/16	1.8	2013/4/5	2.8	2000
Zizurkil	2021/4/16	1.1	2004/4/10	1.8	2000
Berriatua	2021/4/16	0.7	2003/4/5	1.0	2001
Deusto	2021/4/16	3.9	2004/4/10	4.0	2001
Iurreta	2021/4/16	0.3	2003/4/8	0.8	2001
Matxinbenta	2021/4/16	-0.9	2013/4/6	0.2	2002
Mañaria	2021/4/16	-0.5	2006/4/12	0.5	2003
Espejo	2021/4/8	-3.8	2019/4/13	-3.4	2004
Roitegi	2021/4/13	-4.6	2019/4/13	-3.8	2008
Higer	2021/4/15	5	2013/4/28	5.3	2010
Miramón	2021/4/16	1.1	2013/4/5	2.1	2010
Santa Clara	2021/4/16	3.4	2013/4/5	3.7	2010
Araxes	2021/4/16	-0.2	2020/4/4	0.8	2011
Arteaga	2021/4/8	0.4	2019/4/13	0.9	2011
Iruzubieta	2021/4/16	-0.8	2019/4/13	-0.2	2012
Sangroniz	2021/4/16	-0.1	2016/4/2	0.3	2012
Behobia	2021/4/16	1.6	2015/4/6	3.5	2013
Venta Alta	2021/4/16	0.3	2016/4/2	0.7	2014
Antoñana	2021/4/16	-2.7	2019/4/13	-2.5	2016
Eskas	2021/4/7	-1	2019/4/3	-0.4	2017
Mallabia	2021/4/13	0.5	2020/4/3	2.3	2020

**Apirilean neurtutako temperatura minimo altuenak**

Estazioa	Data	Egungo errekorra 2021 apirila (°C)	Data	Aurreko errekorra XXI mendeko apirila (°C)	Estazioa jarritako urtea
Abusu	2021/4/24	15.5	2014/4/1	15.4	1992
Estanda	2021/4/24	15	2019/4/17	14.9	1992
San Prudentzio	2021/4/24	14.4	2014/4/1	14.2	1995
Derio	2021/4/24	16.6	2014/4/1	16.5	1996
Oñati	2021/4/24	16.1	2014/4/1	15.3	1997
Aitzu	2021/4/24	13.9	2015/4/15	13.7	2000
Elorrio	2021/4/24	17.3	2019/4/17	15.6	2000
Sodupe-Cadagua	2021/4/24	16.4	2020/4/25	15.3	2001
Mañaria	2021/4/24	15.3	2019/4/17	15.0	2003
Higer	2021/4/1	19.2	2015/4/15	19.0	2010
Araxes	2021/4/24	16.3	2011/4/21	15.2	2011
Galindo	2021/4/24	17.2	2018/4/21	17.1	2013
Venta Alta	2021/4/24	15.9	2018/4/19	15.8	2014
Pagoeta	2021/4/1	10	2020/4/26	9.4	2016
Eskas	2021/4/1	14.9	2020/4/9	12.5	2017
Galdakao	2021/4/24	17.5	2019/4/17	16.0	2017
Mallabia	2021/4/1	15.6	2020/4/10	14.1	2020



## Muturreko egoerak

**Apirilean 7 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 2 elurragatik, 1 izotzagatik, 1 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan eta 3 baso-sute arriskuagatik.**

- Hilaren 1ean baso-sute arriskua altua izan zen, hego-ekialdeko haize zakarragatik, tenperatura altuagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik.

*Osteguna, hilak 1: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala*

- Hilaren 10ean fronte hotz bat pasa zen eta hilaren 11 an giroa hotza izan zen. Egunaren lehenengo partean prezipitazio ugaria egin zuen. Egunaren amaieran elur-kota 900-1000 m-ra egon zen; prezipitazio txikia egin zuen, noizbehinka ertaina. Hurrengo goizaldean elur-kota 800-1000 m-ra egon zen eta han-hemenka prezipitazio txikia egin zuen.

*Igandea, hilak 11: Abisu Horia elurragatik barnealdean 21etatik 24etara ordu lokala. Elur-kota 800-900 m inguruan egongo da.*

*Astelehena, hilak 12: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 09etara ordu lokala. Elur-kota goizaldean 700-800 m-ra egongo da eta eguerdian 1000 m-ra igoko da.*

- Hilaren 13an Britainiar uharteetan zegoen antizikloiaren eraginpean egon ginen. Zerua hodei gutxirekin egon zen eta aurreko egunetako aire-masa hotza lurraldean zabalduta zegoenez, goizaldean barnealdean izotza egin zuen. Iturrietan  $-5.3$  °C neurtu zen.

Estazioa	Temperatura minimoa (°C)
Iturrieta	-5.3
Roitegi	-4.6
Salvatierra	-3.1
Espejo	-2.6
Otxandio	-1.9
Abetxuko	-1.6
Zambrana	-1

*Asteartea, hilak 13: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala. Barnealdeko zenbait tokietan izotz txikia egingo du, probabilitate handiagoarekin Araban.*

- Atlantikoan, Portugalgo kostaldearen parean, zegoen depresioak hego-osagaiko fluxua eragin zuen Penintsula osoan. Lola izena jarri zioten depresioari. Haizeguneak ez diren tokietan hego-ekialdeko haize-bolada oso gogorak neurtu ziren, batez ere Arabako ekialdean eta Gipuzkoako hegoaldean; han haize-boladek 80 km/h-ko abiadura gainditu zuten.



Haizeguneei dagokienez, aipatu behar da Oiz estazioan neurtutako haizebolada (101.6 km/h).

Estazioa	Haizebolada (km/h)
Zizurkil	92.8
Ilarduia	86.8

*Larunbata, hilak 24: Gipuzkoan eta Araban 00etatik 12etara ordu lokala.*

- Lola izena jarri zioten depresio horren eraginpean, tenperaturak gora egin zuen, hego-ekialdeko haizea indartsu ibili zen eta hezetasun erlatiboa baxua izan zen. Horregatik, hilaren 24an eta 25ean baso-sute arriskua altua izan zen.

*Larunbata, hilak 24: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.*

*Igandea, hilak 25: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.